

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko ekainaren 21a / 501. zenbakia



San Juan sua berreskuratzeko, hainbat taldek egindako meta San Martin plazan

BKE: HAUTAGAIK EZ ZUZENDARITZARAKO/9 • UDAKO GAUAK: JAZZ ETA FILM EMANALDIK GERTU/10

GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako



AGIRRE MARGOAK

Artzamendi 2,
5-D
943 76 53 82

- Orotariko pintaketa lanak

ARISTEGI-TOLA



ITURGINTZA

Bolu 26
943 76 54 17

- Kalefakzioa
- Bainurako altzariak eta dekorazioa
- Konponketak



Aribar pol. C-4,
S. Juan auzoa
943 76 02 78
670 422 059
F 943 76 02 78

- Pintura
- Dekorazioa



619 692 336
943 78 90 57
943 76 80 25

- Antena instalazioak
- Mantentze lanak
- GOITB ikusteko beharrezko guztia



EGUREN INTURAK

Irala kalea z/g
943 76 33 01
F 943 76 33 01

- Orotariko pintaketa lanak

Iturkintz Berri S.L.

Amillaga 1
943 76 28 04
F 943 76 36 58

- Bainurako altzariak
- Era guztietako kalefakzio instalakuntzak

J.M. IZAGIRRE

Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza

Antonio Bourzas

Zurradero 8, 1-A
943 76 06 12
689 805 802

- Margoak eta dekorazioa



MATXIATEGI S.L.

ELEKTRAGINTZA

Zurradero 8
943 76 19 94

- Material eta etxeko tresna elektrikoak
- Instalazioak
- Hari musikala

Andres margoak

Zubiaurre 19
Ozaeta 9
669 887 814
669 887 815

- Pintura dekoratiboa

BERGARA

Margoak

Amillaga 1,
1. pabilioia
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32

- Orotariko pintaketa lanak



fontaneria

arrañaga, s.l.

Matxiategi 16
943 76 29 97
F 943 76 04 22

- Diba: bainuaren diseinu osoa
- Gas instalazioa
- Berogailuak

MERCURIO SL

ELEKTRIZITATEA

Matxiategi 32,
behea
943 76 11 01
F 943 76 11 01

- Orotariko elektrizitate lanak
- Telekomunikazioak



UR

kristaldegia

Martoko 1-3
943 76 54 68

- Ispiluak
- Beirateriak
- Biselatuak
- Plastikoak



izarra

elektrizitatea

Zubieta 10
943 76 54 10
943 76 19 99
943 76 10 60

- Orotariko instalazio elektrikoak

ATREBENTZIAEZPADA/ Ze pentsatzen jatzu obispuek kaleratuko idatzixa?



LOURDES AMURRIO
35 urte



IÑAKI AKIZU
27 urte



RAMONA IBARBIA
64 urte



JOSE MANUEL URANGA
44 urte



ANA OIANGUREN
37 urte



MARIBEL MEDINA
33 urte

Nere ustez, oso garrantzitsua da obispuek egunero-ko bizitzan parte hartzea, eta horregaitik oso ondo pentsatzen jat. Edukixa, baiña, ez dot zehatz-mehatz ezagutzen.

Neri oso ondo pentsatzen jat idatzixa, azken baten, egoerak hobera egiteko bitartekuek eskaintzen dittualako; idatzixarena oso diskurtso positibua dalako neurri horretan.

Erlijiñuak hemen beti euki dau garrantzia, eta obispuek holako idatzixa kaleratzian jentia aintzat hartuko dabela uste dot. Obispuek euren iritzixa emotia garrantzitsua da.

Motelegixa, gogorrugua izan biharko litzake. Batez be, ikusitta komunikabidiek zela erreazionatu daben. Dana dala, 350 abadek egindako idatzixakin konformeago nago.

Oso ondo dago. Gaiñera, egixa da esaten dabena, hemen hori gertatzen da. Ordua zan obispuek holako zerbaitegiteko, batez be, hemen jente asko dagolako eliziakin lotuta.

Pertsonak dien neurrian, euren iritzixa askatasun danakin emon ahal dabela uste dot. Eta ez dot ikusten zertan sortu bihar daben holako polemikia. Neri oso positibua pentsau jat.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ARGITERIA ESKASA Irakurle baten deia jaso dugu, eta esan digu San Pedro kalean oso argi gutxi dagoela. Badirudi egunero igarotzen dela handik, eta gauez, ez ei dago argi nahikorik, hark esandakoagatik; batez ere, neguan, gaua goizago heltzen delako. San Pedro kalea pixka bat gehiago argitzeko farolaren bat jartzea asko eskertuko luke irakurle horrek. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 7

KIROLAK / 9

KULTURA / 10

San Juan Sua plazan

Herriko hainbat taldek sua egingo dute San Juan bezperan, ohitura berreskuratzeko asmoz.

Bergara KEko batzarra

Iñigo Zaitegiren taldeak ez du Zuzendaritzan jarraituko, eta oraingoz ez dago ordezkorik.

Ikurrinaren legeztapena

Ikurrinaren legeztapenaren gaineko argazki erakusketa zabalduko dute kultura etxean hilaren 25ean.

ASTEKODATUA

1.000

BERGARAN ERROLDATUTA DAGOEN TXAKUR KOPURUA

Udalak egindako erroldaren arabera, mila txakur inguru daude Bergaran. Erroldan txakurraren identifikazioa, izena eta arraza daude jasota. Baita nagusiaren izen-abizenak eta helbidea ere.

BESTEKEESANA

Araba Euskarazek gogoetarako zenbait puntu sortarazi zizkigun. Araba zazpigarren alaba izan da eta horrela jarraituko du erabaki sendoak eta premiazoak hartu ezean. Araban euskararen presentzia eskoletan oraindik oso urria da. Ikastolak izan dira euskararen hazia erein dutenak eta nolabait esateko erein eta ernarazi ere bai. Ikastola herriak eraiki, eskoletan D eredua txertatu eta euskararen erabilera bultzatu kale ekintzak eginez. Horri helduz oso inportantea da atzo gizon batek esaten ziguna: euskararen erabilera bermatzeko ezinbestekoa ongi ikastea da. Egunero baieztatu dezakegu hori. A eta B ereduek ez dute horretarako biderik ematen. D ereduek ere ez, benetan eta zentzunez ezartzen ez bada.

ANDRES OSA "SAKONA"
'Deia' / 02-06-17

BERAIEK DIIÑO / Mila Elortza



*Herriz herri
AHTrik ez!*

Euskal Herrian aspaldian gauza asko ari da aldatzen, ikuspuntu guztietatik, eta arlo askotan gauzak betiko aldatuta geratu arren, inork ez digu aukeratzeko paradarik ematen, ezta inongo informaziorik ere; guri bakarrik ez, gure udaletxeek ere ez dute beto eskubiderik.

Angiozarko Batzarrek, AHT Gelditu! Elkarlanean parte hartzea erabaki zuen, nonbaitetik informazio apur bat jaso ahal izateko, eta aldi berean denon indarrak batzeko. Gaur egungo egoeraren larritasunak denon laguntza eskatzen du, herriak bere indarra erakutsi behar du eta ozen esan: AHT gelditu! Badira etengabeko mobilizazioei esker garaile atera diren borroken adibideak. Guk erabaki behar dugu zer-nolako herria nahi dugun, eta ez beste inork!

Horregatik guztiagatik, ekainaren 30etik uztailaren 6ra AHT gelditu beharra aldarrikatzeko herriz herri egingo den

ibilaldian parte hartzera animatu nahi dugu jende guztia. Parte hartzea errazteko udalerrien arteko zatiak bizikletaz egingo dira eta herriak oinez zeharkatuko dira.

Debagoieneko etapa bigarrena izango da, eta uztailaren leian hasiko da. Legutien irtengo da 11:00etan, eta Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasatetik igaro ondoren Bergarara helduko da.

Altos Hornosera 19:00ak aldera iritsiko da. Hantxe egin dugu deialdia, eta animatzen zareten guztiokin

bizikletaz Espoliraino joango gara. Espolira 19:15ak aldera iritsiko da martxa eta hantxe oinezkoendako deialdia dago eginda. Horrela, oinez, Ibagaraitik Munibe plazara iritsiko gara. Muniben Iñaki Antiguëdad eta Jesus Mari Garitanok AHTk gure herrian eragingo dituen kalteen berri emango dute. Bertsolariak, trikitilariak eta hankapaloak ere egongo dira. Guztiok gonbidatuta zaudete.

"Egoerak denon laguntza behar du; herriak bere indarra erakutsi behar du eta ozen esan: AHT gelditu"

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre,
Maitane Arizabaleta,
Juan Martin Elexpuru,
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Komunikazio Zerbitzua



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Begarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 21**
MOZOS, San Pedro 4..... 943 76 12 15
- ZAPATUA, 22**
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- DOMEKA, 23**
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 24**
PUY, Barrenkalea 25..... 943 76 19 63
- MARTITZENA, 25**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 26**
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- EGUENA, 27**
MOZOS, San Pedro 4..... 943 76 12 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda)..... 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa..... 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa..... 943 76 62 46
Ertzaintza..... 943 76 53 40
Osasun etxea..... 943 76 24 40
Asepeyo..... 943 76 16 43
Pakea..... 943 76 13 49
Angiozarko medikua..... 943 78 90 27
Antzuolako medikua..... 943 76 62 23
Odol emalleak..... 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06
- GARRIAK**
- Taxiak..... 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaletxea..... 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea..... 943 76 62 46
Udal Artxiboa..... 943 77 91 32
Igerilekuak..... 943 76 20 51
Kultura etxea..... 943 77 91 58
Liburutegia..... 943 77 91 62
Kirolegia..... 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia..... 943 76 14 92
Erregistroa..... 943 76 13 15
Jardun..... 943 76 36 61
Idolaz..... 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara..... 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk..... 943 76 62 71
Postetxea..... 943 76 26 85
Bedelkar..... 943 76 04 68
Akulu AEK..... 943 76 05 18
Udal Euskaltegia..... 943 76 44 53
Bergarako notariatza..... 943 76 10 73

MEZAK

- Santa Marina** Domekak: 10:30.
Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:15.
- San Pedro** Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.
- Sierbak** Lanegunak: 19:30.
- Osintxu** Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00.
- Elosu** Domekak: 10:30.
- Ubera** Domekak: 10:30.
- San Juan** Domekak: 11:00.
- Elorregi**
- URTE-MEZAK**
- Santa Marina** Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro** Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

AIZEPEREN BATZARRA EKAINAREN 29AN
Aizepe elkartearen batzarra izango da ekainaren 29an, San Pedro egunean. Batzarri begira, bazkideek eskuragarri dituzte estatu-tu berriak.

ODOL ATERATZEA EGUAZTENEAN
Bergarako Odol Emaileen Elkarateak jakinarazi duenez, eguaztenean, hilaren 26an, odol ateratzea izango da Seminarioko lokalean, 18:30etik aurrera.

OTABA JAIE TAKO ZOKETA
Elosuko Otaba jaietan egindako zozketan 3.100 zenbakia izan zen saritua. Txartelaren jabeak ondoko telefono zenbakira dei dezake: 943 81 16 62.

1927AN JAIO TAKOEN IRTEERA HILAREN 28AN
1927an jaiotako en diaman-tezko ezteiak direla eta, aurten 75 urte beteko dituzten bergararrek Bizkaiko kostaldera irteera egingo dute datorren egubakoitzean, hilaren 28an. Ibilbidea honako hau izango da: Mungia, Bakio, Bermeo, Forua (bazkaldu Foruan bertan egingo dute), Gernika eta, bueltatzerakoan, Elorri on geratuko dira. Irteera 09:00etan egingo dute, frontoitik.

JARDUNEN AGENDA

JOLASLEKU IBILTARI BEREZIA
Domekan, hilaren 23an, jolasleku berezia 16:00etatik aurrera Fraisko zurin: soka-saltoa, euskal kantak, marrazketa-gunea, eta abar.

ANTZERKIA DOMEKAN
Gaztetxoei zuzendutako *Morgan pirata* antzezlan a domekan Fraisko zurin, 18:00etan hasita.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soralue aurrean), Matxiategi (Mizpildi-okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraia (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraia / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraia, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN

Bergara futbol taldea preferentera igo zen


Bergarak preferentera igoera lortu zuen 1992ko ekainaren 21ean, Rotetari penaltietan irabazi ondoren, Agorrosinen. Bergarak Rotetak joaneko partidutik zekarren alde berdindu zuen, 2-0 irabazita. Azkaratek eta Mendozak egin zituzten golak eta penaltietan mahoneroak nagusitu ziren.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Motxarda"

Neskatila bizi eta bihurria.
—Nungua da neskaitilla motxarda belendriñ hau?



GORKA ORTEGA

ASTEKO FILMAK

'EL ATAQUE DE LOS CLONES'

ZUZENDARIA: GEORGE LUCAS. AKTORE-
AK: NATALIE PORTMAN, EWAN MC GREGOR.

HARIA. *Skywalker* eta *Obi-Wan Kenobi jediek Amidala* babestuko dute, eta *Skywalker Amidala* rekin maiteminduko da...

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean.

PUNTAUZIOA: ●●●●●



OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak
943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara

Larrañaga

BANATZAILEA

- Esnea
- Ura
- Sagardoa
- Errioxako ardoa
- Etxera eramaten dugu!

Martoko 32, behea

Tel. 943 76 45 94 / 659 770 171

Raizabal

- Pastelak eta pastel txikiak
- Pastak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak
- Tarta bereziak

Artekalea 9

Tel. 943 76 11 83

Bidekurutzeta 20

Tel. 76 12 19



- Pastelak eta pastel txikiak
- Pastak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak
- Bertan egindako izozkiak

Irala 3

Tel. 943 76 12 35

Mujika

gözotegia



- Pastelak eta pastel txikiak
- Pastak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak
- Bertan egindako natazko izozkia

Artekalea 3

Tel. 943 76 10 34



MANSO HERMANOS SA

- Lambion
- Viña Arnoa
- Mundiala
- Sonsierra
- Viña Mindiarte
- Rueda Monasterio de Palazuelos
- Txakolina: Akarregi Txiki

Amillaga 11

Tel. 943 76 14 48

ETXAGI

JATETXEA

- Patata tortilak
- Oilaskoak
- Bertara eramaten dugu!

Masterreka 8

Tel. 943 76 53 12





MONIKA BELASTEGI

Duela hilabete bi, txakurrak ez sartzeko oharrak jarri zituen Udalak hainbat lorategitan, baina ez ei dira oso eraginkorrak izan.

INGURUMENA/ Txakurren gorotzak botatzeko zakarrontziak jarriko dituzte

Txakur-heziketa kanpainari ekingo dio Udalak uztailean

MONIKA BELASTEGI

Guztiok ditugulako gure beharrak izeneko kanpainak xede bi ditu: garbitasuna eta segurtasuna. Horiek bermatzeko, txakurren kakak jaso eta botatzeko poltsak eta zakarrontziak jarriko ditu Udalak. Txakurrak dituzten herritarrei dago zuzenduta kanpaina.

Guztiok ditugulako gure beharrak kanpainaren helburua da txakurrak dituzten herritar guztiak indarrean dagoen araudia gainean informatzea, eta, aldi berean, kontzientziatzea. Horretarako, txakurren jabeek etxean jasoko dute kanpainaren berri. Bergaran 1.000 txakur inguruko errolda dago; eta Udala txakur bakoitzaren jabearengana joko du kanpainaren berri emateko.

GARBITASUNA ETA SEGURTASUNA

Kanpainak xede bi ditu: garbitasuna eta segurtasuna; animalien gaineko Udal ordenantzak ere

jasotzen dituen xede bi. Honela dio, hain zuzen, ordenantzak: "debehatuta dago txakur gorotza bide eta plaza publikoetan, umen parkeetan, lorategietan eta, oro har, leku apaingarrietan edo jendea ibiltzen den lekuetan uztea. (...) Udalak horretarako egokitu-tako lekuetara bota beharko du nagusiak txakurraren gorotza".

Txakurren gorotza jaso dituzten kontzientziatu nahi ditu Udalak txakurren jabeak; izan ere, zikina izateaz gain, arriskutsua ere izan daiteke umek edo adinduek zapalduz gero. Horrela izateko, bitartekoak jarriko ditu Ber-

garako Udalak: gorotza jasotzeko poltsak eta botatzeko zakarrontziak, hain justu ere. Gorotza jasotzeko sistema oso erraza izango da: kartoizko jasotzailearekin batu eta paperezko poltsetan sartu beharko da gorotza, eta horren ondoren, horretarako jarriko dituzten zakarrontzietara bota.

Hamabiren bat zakarrontzi jarriko dituzte, Udaleko iturrien esanetan, herri erdialdeko parke, pasealeku, lorategi eta, oro har, oinezkoendako guneeetan.

ZAINZA AREAGOTUKO DA ETA ISUNAK ERE EGON DAITEZKE

Zakarrontziok uztailean jarriko dituzte, eta jarri ondoren ekingo dio Udalak kanpainari. Horrela, erroldatutako txakur bakoitzaren jabeari etxera helaraziko dio Udalak kanpainaren gaineko informazioa. Kanpaina hasten denean, gainera, Udaltzaingoa-ren zaintza areagotu egingo da gai horretan, eta ordenantzak jasotzen duenez, isuna 30 eta 300 euro bitartekoa izan daiteke.

Txakurren nagusiek betebeharrak batzuk dituztela ohartarazi nahi du Udalak kanpainarekin

LABUR

Udaleko Gobernu Batzordeak herriko hainbat kaletan agertutako pintadak salatu ditu


Udaleko Gobernu Batzordeak publikoki salatu nahi izan du, erre-dakziora bidalitako ohar baten bidez, ekainaren 2tik 3ra bitartean herriko hainbat kaletan azaldutako pintadak; Barrenkalean, Bidekurutzetan, Komenion, Ikerlekun eta Masterrekan, hain justu ere.

'Benta-berri' etxearen gainean egindako akatsaren zuzenketa

BERRIGARAko 499. alean, Beasain-Durango autobaien gaineko albistean, zubi berria eraikitze lanak direla-eta *Ibarguren* base-ria bota dutela esan genuen akatsez. Izan ere, *Benta-berri* etxea bota dutela behar zuen.




Ekitaldi gehiago asteburuan gaztetxearen bigarren urteurrena ospatzeko

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Interruptus taldeak *Plater kombina-tua* lana eskainiko du. Bihar, zapatua, 16:00etan, futbol txapelketa egongo da; 19:30ean, Latirili taldeak *Missh...eria* antzez-lana eskainiko du San Martin plazan, eta 22:30ean, Ki-Sap eta Txakunpa taldeek kontzertua emango dute gaztetxean. Domekan, 18:00etan, *Gaztetxeak Deba bailaran* gaiaren gaineko mahai-ingurua egingo dute ibarreko hainbat gaztetxetako kideek.



San Kristobalgo hondakindegia bukatzeaz

San Kristobalgo hondakindegia alternatibo berriko lanak oso aurreratuta daude. Eibar-Gasteiz autobidearen trazaketatik tokiz aldatu behar izan dute; oraingo hondakindegitik metro batzuk Angiozar alderago egiten ari dira berria. Mankomunitateko iturrien esanetan, baliteke abuzturako lanak amaituta egotea. Bien bitartean, zaharrak jarraituko du zabalik.

-  Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
-  Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
-  Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63. BERGARA


ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

JAIK/Hilaren 23an izango da, 22:00etan, eta ohitura berreskuratzea dute helburu

Herriko hainbat taldek San Juan Sua egingo dute plazan

MONIKA BELASTEGI

San Juan bezperako sua berreskuratzeko asmoz, jaialdia antolatu dute hainbat taldek San Martin plazan. Ohiturari eutsiz, talde bakoitzak urtean jasandako gertakari txarrak erreko ditu plazan egingo duten suan. Parte hartzeko deialdia egin dute.

Herriko talde ugari bultzatu dute San Juan Sua berreskuratzeko ekimen hori. Honako hauek: Segik, AHT Gelditu! Elkarlanak, EHEk, Batasunak, Gazte Asanbladak, Emakumeen Aldeko Asanbladak, AEK-k, Jardun Euskara Elkarreak, Bai Euskal Herriari taldeak, Etixerat-ek eta Askatasunak, hain justu ere.

Talde horiek guztiek jaialdia antolatu dute ekainaren 23an, San Juan bezperan, eta astelehen egindako prentsurrekoan azaldu zuten, ekimenaren helburua da "San Juan Sua berreskuratzea, ohitura eta esanahi guztiarekin".

EKITALDI SINBOLIKOA

Helburu horri jarraituz, talde bakoitzak "urtean barrena jasandako erasoak edo baztertzeko ditugun gauza txarrak erreko ditugu San Martin jaian egingo dugun suan".

Ipuin baten oinarrituta erreko ditu talde bakoitzak urtean jasandako gauza txarrak. Batzuk aipatzearen, AHT Gelditu! Elkar-



Talde guztietako ordezkariak prentsurrekoan eman zuten asmoen berri.

lana taldeak trena erreko du eta AEK-k, EHEk eta Jardun elkarreak euskarak jasandako erasoak erreko dituzte.

Talde bakoitzak baztertzeko dituenak erre ondoren, eta ohiturari eutsiz, aurrera begirako asmo eta nahien berri ere eman go dute suaren inguruan: "Talde bakoitzak gure gogo, asmo eta nahiak irudikatuko ditugu, modu sinbolikoan, puzzle baten osatzarekin".

Ekitaldia San Martin plazan izango da, 22:00etan, eta dantzariak, trikitalariak eta herri kantaldia ere izango dira jaialdiaren barruan. Antolatzaileek dei egingo diete herritarrei San Juan Suan parte hartzeko.

Gertakari txarrak erre eta nahiak modu sinbolikoan irudikatuko dituzte puzzle batean

KZgunea jartzeko egoitza egokia bilatzen ari da Udala

KZgunea Interneteko zentro bat da, herritarrei modu askean eta dohainik Internetera sartu eta teknologia berrietara egokitzeko aukera eskaintzen duena.

Zentro hori Eusko Jaurlaritzak garatutako *Konekta Zaituz Herrit@r* proiektuaren barruan dago, eta horren bitartez, informatikako doako zentro publikoen sarea eratu nahi dute EAEn,

herritar guztiek Internetera sartzeko aukera izan dezaten. Dagoeneko hainbat herritako udalek ireki dituzte horrelako egoitzak; hurbilean, Arrasatek, esaterako.

Zentro publiko hori da, hain justu ere, Udala antolatu nahian ari dena, eta horretarako egoitza egoki baten bila dabil, ordenagailuak jarri eta zerbitzua eskaintzen hasteko.



Internet eta teknologia berriak guztien eskura jarriko ditu KZguneak.

LABUR

'Euskara justizian' mahai-ingurua egongo da UNED zentroan datorren eguenean, 18:30ean

Bergarako UNEDek antolatu du mahai-inguru hori eta *Euskara justizian* gaiaz jarduteko hiru lagun gonbidatu ditu: Nekane San Miguel magistratua, Esther Larrañaga Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuordea eta Luis Barinagarrementeria abokatu. Mahai-ingurua UNEDen izango da, ekainaren 27an, 18:30ean, eta interesa duen edonor joan daiteke.

ARDATZA
Brikolajea

Ateak eta zokaloak	Koadroak markoan ipini
Horma-armairuak	Era guztietako moldurak
Sarrailak	Apalak
Heldulekuak	Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

**FGUREN
HINTURAK**

Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01

**EDEL
TAPIZDENDA**

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

UDAKO IKASTARO TRINKOAK: uztailaren 1etik 19ra

**INGELES
FRANTSES
ALEMANA**

- GOIZEZ nahiz ARRATSALDEZ
- Maila eta adin guztiak
- Egunero HIRU edo LAU ORDU
- Matrikula zabalik ekainaren 28ra arte

**STONE HOUSE
HIZKUNTZAK**

943 76 06 87
Ibargarai 18, behe-3

**AGOITZ
tapiz
denda**

Leizariako
San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

ASTEBURUA BAKAIKUN

Kuadrillategiko neska-mutikok Bakaikun, Nafarroan, pasatu zuten joan den asteburua, begiraleekin batera. Hamar lagun joan ziren Bergararik; baina ez ziren eurak bakarrik joan. Gipuzkoako Kuadrillategi egitasmoko neska-mutiko guztiak izan ziren Bakaikun. Horrela, beste herri batzuetako gazteak ezagutzeko aukera izan zuten: Debako, Lasarteko eta Beasaingo Kuadrillategikoak, hain zuzen ere. Hogeita hamar bat lagun elkartu ziren. Joan den asteburua berezia izan zen eta halakoxea izango da datorren hau ere; izan ere, ikasturteari amaiera emango diote afari batekin. Ondo pasatu, bada, afarian, bai eta oporretan ere!



ODOL EMAILEEI OMENALDIA DOMEKAN ARRATEN

Deba ibarreko odol emailleek Batzar Nagusia egin zuten joan den domekan Arraten. 180tik gora lagun elkartu ziren hantxe. 13:00etan, meza entzun zuten Arrateko Santutegian, eta horren ondoren, bazkaria izan zuten. Bazkalostean, berriz, 25 eta 50 aldiz odola eman dutenei omenaldi xumea egin zieten; Bergarako 21 lagunek jaso zuten zilarrezko domina, honakok, hain zuzen ere: Loli Larrañaga, Luis Eraña, Ignacio Etxaniz, Alexander Odriozola, Mari Jose Aranburu, Ramon Barrutia-bengoa, Victoria Beitia, Migel Anjel Unamuno, Jose Ignacio Millán, Jesus Martin Garitano, Begoña Azkargorta, Anjel Altuna, Luisa Muruamendaraz, Jesus Anjel Oroiz, Elisa Amasorrain, Migel Zenitagoia, Anjel Medina, Mari Carmen Leturia, Jon Ander Muxika, Asier Maure eta Eburne Sotil. Xabier Zabaletak, berriz, urrezko domina jaso zuen, 50 aldiz eman du-eta odola. Zorionak, bada, guztioi!

SAN ANTONIO JAIETAN

Ekainaren 13an, San Antonio eguna izan zen, eta ez zen ospakizunik falta izan auzo horretan. Eguenean hasi eta domekara bitartean, hainbat ospakizun izan zituzten. Eguenean bertan, meza izan zuten goizean, eta meza ostean lurcha egin zuten Gure Ametsa elkartearen argazkian ikus daitekeen moduan. Eguen gauean, berriz, urte luzez San Antonioren ermita zaintzeaz arduratu diren lau lagunei omenaldia egin zieten. Zapatuan ere ez zuten sanantonioarrek aspertzeko aukerarik izan: herripoteoa, bazkaria, txaranga... denetik izan zuten. Domekan bukatu zituzten ospakizunak, txirringularitza lasterketarekin.



IRRINTZI
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

Dixula

**BOKATAK
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32
BERGARA
Tf. 943 76 44 95

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel. 943 76 39 53

ARRI

Industri
hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tf. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

BERGARAN
BULEGO BERRIA

KROSTI
INMOBILIARIA

BERGARA LEGAZPI
Ibargarai 3. Santikutz 8.
943 76 97 97 943 73 05 25

10 URTEKO
ESPERIENTZIA!

POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara



Josetxo Muniategi, Julio Mendaraz, Iñigo Zaitegi, Aniotz Gabilondo eta Luis Mari Gutiérrez egubakoitzeko batzarrean.

BERGARA KIROL ELKARTEKO BATZAR OROKORRA

Hautagairik ez Bergara KEko Futbol Saileko Zuzendaritza hartzeko

Datozen asteotan ordezkotaldereen bat aurkezteko itzaropena azaldu zuten batzarrean

E.M.

Joan den egubakoitzean egindako batzarrean Iñigo Zaitegi Bergara KEko presidentek kargua utziko duela adierazi zuen. Datozen asteotan, ordezkotaldereen baten kandidatura jasotzeko itzaropena azaldu zuten Zaitegiren Zuzendaritzako kideek.

Zaitegiren taldeak Zuzendaritza utziko du. Hala ere, datozen asteotan taldereen batek Futbol Sailearen ardura hartzeko itzaropena azaldu zuten Zaitegik berak eta

Julio Mendaraz diruzainak. Kultura etxean egindako batzarrean 30 lagun inguru izan ziren.

Diru kontuei dagokienez, taldeak aurtun 123.919 euroko aurrekontua eta 2.891 euroko (481.022 pezeta) defizita izan du. Bazkide kopuruak behera egin du (50 baja), Zuzendaritzako ustez, futbol taldea kategoriaz jaitsi zelako iaz. Egun, 449 bazkide ditu Bergarak, eta kuotak bere horretan uztea onartu zuten batzarrean. Bestalde, Agorrosingo zelaiaगतिक Udalari ordaindu beharreko zerga 979 euro (163.000 pezeta) ingurukoa da. Herritarrei eskaintzen

dieten zerbitzua kontuan izanik, zerga ez ordaintzeko ahaleginetan ari direla esan zuten batzarrean. Era berean, 3.000 euroko fondoa sortu nahi dute, gerta litezkeen ezusteko gastuetarako. Beste sailtako ordezkariak urteko balantze positiboa egin zuten.

FEDERAZIOAREN BATZARRA BERGARAN
Bergara KEko sorreraren 50. urteurrena dela eta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren batzarra izango da Bergaran hilaren 29an, goizez. Gero, 200 bat lagun batuko dira Lasa jatetxean egingo den bazkarian.

IPINTZAKO FUTBOL TXAPELKETA

PARTIDUAK

ZAPATUA 22

FUTBOL 11
09:15: The Killer's-La Juve
10:30: Bildurbarek Opel Lam-Drink Team
11:45: Arloteak Lacor-Txokokuak

ASTELEHENA 24

FUTBOL 11
19:15: Tojhu-Getokuak
20:30: Descontrol Oil-Mongitxarrak

MARTITZENA 25

FUTBOL 11
19:15: Fo Fo Fo-Mongatxurak
20:30: Drink Team-A Ze Flaxa Guipuzcoana

EGUAZTENA 26

FUTBOL 11
19:15: Angiola-Bicistua
20:30: Txokokuak-Gore

EGUENA 27

FUTBOL 7, beteranoak
19:30: Arloteak-Bildurbarek Opel Lam
19:30: Ezinleike-Bar Canalejas
20:30: Guipuzcoana-Mongatxurak

NESKAK, seniorrak

20:30: Ogizun-Baztangak

EGUBAKOITZA 28

NESKAK, alebinak

18:00: Finala

NESKAK, kadeteak

19:00: Arloteak-Elgeta
20:00: Mariaren Lagundia-Soraluze

NESKAK, seniorrak

20:00: Potzu Ta Zapaburuak.Ou Pitxu Ou
21:00: Pentol's Team-Arloteak
21:00: Arrano-Plaust

Aerobik eskaintza handitzeko eskaera egin diote Udalari

E.M.

Aerobik eskoletan ari diren 71 lagunek idatzi bat aurkeztu dute udaletxean, uda kanpaina aerobik eskaintza handitzeko eskaizteko. Uda kanpainaren lehen txanda astelehenetik, hilaren 24tik, uztailaren 5era bitartean izango da. Plaza kopurua gainditzen den jardueretan izena eman dutenen artean zozketa egitea erabaki du Udalak.

Hori dela eta, aerobik taldeetako ikasleek idatzi bat bidali dute udaletxera. Idatzian jaso

tzen denez, "ikastaro batzuetarako azken kanpainen, udan nahiz neguan, egon den eskaera ikusita, ez zaigu iruditzen zozketa irtenbide egokiena denik. Gure ustez, eskaintzen zabaldu beharko litzateke eskaerara egokituz".

UDABERRIKO PILOTA TXAPELKETA

Bestalde, Udaberriko pilota txapelketako finalak jokatu dira bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan, 11:00etan hasita. Txapelketan 7 urtetik 16 urtera bitarteko gaztetxoak aritu dira azken asteotan.


Imanol Mendikute garaile San Antonion

E.M.

Imanol Mendikute (Oriako) gazteak irabazi zuen San Antonioko saria (Honorio Agirregabiria II. Memoriala). Txirrindulariek sekulako beroa jasan behar izan zuten domekako lasterketan, 38º ingurukoa, eta ibilbidea gogorra ez izan arren, arazo bat baino gehiago izan zuten proba amaitzeko, beroaren erruz. Irteeran 85 lagun izan ziren eta 70 kilometroko ibilbideari ekin zioten. Imanol Mendikute bakarrik heldu zen San Antonioko helmugara

eta hura dugu bigarren urteko kadete mailako Gipuzkoako txapeliduna. Lehen urteko kadeteetan, berriz, Mikel Garmendia (Lagun Onak) nagusitu zen, eta hark jantzi zuen Gipuzkoako txapelidunaren maillota.

Bergararrei dagokienez, Lokatza Biciprecisión Igartua taldeko gazteek lan aipagarria egin zuten. Unai Arantzabal 15. postuan iritsi zen helmugara eta lehen urteko kadeteen artean, Gurutz Larrea izan genuen taldeko onena. Biek hala biek, garaikur bana jaso zuten probaren ostean.



Imanol Mendikute, Gurutz Larrea, Unai Arantzabal eta Mikel Garmendia txirrindulariak Josean Etxeberria zinegotziarekin.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

Aurtengo berrikuntza nagusia da uztaileko jazz emanaldien egutegi eta ordutegi aldaketa: egubakoitzetan izango dira, 22:30ean

'Udako gauak' egitaraua prest uztailean eta abuztuan jazz eta zinema eskaintzeko

MONIKA BELASTEGI

Udako gauak izeneko kultura egitaraua prest dago. Azken bi urteetan moduan, uztaileko eta abuztuko gauak alaitzea du helburu. Batetik, uztailean, lau jazz emanaldi izango dira egubakoitz gauetan, Espoioan; bestetik, abuztuan, bost film, eguenetan, San Martin plazan.

Uztailean jazz kontzertuak eta abuztuan film emanaldiak. Horrek aurreko urteetako ildoari jarraitzen dio. Hala ere, aurtengo, aldaketa nabarmen bat egongo da: uztaileko jazz emanaldiak ez dituzte eguenetan egingo, orain arte bezala, egubakoitzetan baizik (uztailaren 20koa zapatuan izango da). Ordutegia ere aldatu egin dute: 22:30ean izango dira, eta ez 22:00etan. Osterantz, Espoioan izaten jarraituko dute.

Aldaketaren arrazoia hau da, Nere Amaia Zabala Kultura zinegotziaren esanetan: "Eguena laneguna izanik, jendea ezin da Espoioan lasai egon, hurrengo egunean lan egin behar duelako. Egubakoitzetan jendeak ez dio erlojuari hainbeste begiratzen".

LAU KONTZERTU, BOST FILM

Lau kontzertu izango dira: uztailearen 5ean, Delicatessen taldea; 12an, Malcom Scarpa & The Hokum Ladies; 20an (zapatua), Mario Fernandino Sextet; eta 26an, Sir Aligator Company.

Eta abuztuko filmak, berriak, eguenetan izango dira, 22:00etan, San Martin plazan: abuztuaren 1ean, *Harry Potter* (gaztelaniaz); 8an, *El rey de la granja* (euskaraz); 15ean, *Charlie & Louise* (euskaraz); 22an, *Notting Hill* (gaztelaniaz); eta 29an, *Parque Jurásiico III* (gaztelaniaz).



DELICATESSEN Musika estilo antzekoak gustuko zituzten lau lagunek sortu zuten Delicatessen 2001ean: bateria, baxua, gitarra eta Bergarako Jesus Álvarez saxoak, hain justu. Eurak konposatutako doinuak jotzen dituzte, batez ere. Estiloari dagokionez, jazz, rocka eta funky-a jorratzen dituzte, baina baita latina eta flamenkoa ere.



MARIO FERNANDINO SEXTET Musika eskolako irakaslea da Mario Fernandino saxofoi jotzailea. Duela lau urte beste bost musikarirekin elkartetu eta eratu zuten seikotea. Art Blakey eta Messengers seikotearen estiloa dute oinarrian, 50. eta 60. hamarkadetako taldeena. Euren errepertorio eta talde ezagunen bertsioak egiten dituzte.



MALCOM SCARPA & THE HOKUM LADIES Hainbat musika estilo lantzen dituen musikari ezaguna da Scarpa: *country*-a, bluesa, popa, ... Hala ere, grabatutako disko guztietan jazzaren joera nabari da. Ez, baina, edozein jazz; *ragtime* eta 20-50 hamarkadetako estiloek markatutakoa baizik. Horren gainean osatu du The Hokum Ladies.



SIR ALIGATOR'S COMPANY Lau tronboik, tuba bik eta bateria batek osatzen dute, guztiak ere, Kontserbatorioko irakasleak. 1995ean ekin zioten, eta pop, rock eta soul estiloetan nabarmentzen dira. Nino Bravo, Frank Sinatra, James Brown eta era horretako kantarien bertsioak egiten dituzte. Eskaintzen duten ikuskizuna ere aparta da.

Ikurrina legeztatu zutenekoa argazkitan

MONIKA BELASTEGI

Urtarrilaren 19an, 25 urte bete ziren Ikurrina legeztatu zutela. Hori horrela, Ikurrinaren legeztapenaren gaineko erakusketa ekarri du Batasuna taldeak. Ekainaren 25etik uztailearen 7ra bitartean egongo da zabalik erakusketa, kultura etxean, ohiko ordutegian. Eta berrogei paneletan barrena orduko argazki, marrazki eta egunkari-zatiak egongo dira ikusgai.

Erakusketa Aretxabaletako Argazki taldearena da; Ikurrinaren 25. urteurrenerako anto-

latu zuten, eta Eskoriatzan ere egon da ikusgai.

Argazkiek gerra garaiko irudiak eta une benetan hunkigarriak jasotzen dituzte: San Martin plazan Ikurrina altxatu zuteneko argazkia, esaterako.

JOSE LUIS ELKOROREN BERBALDIA

Jose Luis Elkorok bertatik bertara ezagutu zuen Ikurrinaren legeztatzea; Bergarako alkate zen garai hartan, eta hark berbaldia egingo du hilaren 25ean, erakusketa irekitzeko, 19:00etan. Sasoi haien eta izandako gertakarien gainean egingo du berba.



1977ko urtarrilaren 19an sei mila lagun inguru bildu zen San Martin plazan.

KULTURAPILULAK

Bergararrak hirugarren Seguran, Dantza Txapelketan

Asier Ena eta Maite Lazkano Bergarako bikotea hirugarren sailkatu zen joan den domekan Seguran jokaturako 26. Euskadiko Dantza Suelto Txapelketan.

Finalean parte hartu zuten hamabi bikoteen artean, honako bergarar hauek ere jardun zuten: Aitzol Enak (Bergara) eta Miren Illarretak osatutako bikotea; Xabier Azurmendik eta Janire Urbietak (Bergara) osatutakoak, eta Alex Torrek eta Josune Fernándezek (biak bergararrak) osatutako bikoteak.

E, TXO!

**KUADRILATEGIKOEN
AGURRA**

Oraingo asteburuan elkartuko dira azkeneko aldiz Kuadrilategikoak. Ikasturteari amaiera emateko, gaur, egubakoitza, afaria egingo dute egitasmo horretan parte hartu duten neska-mutikoei eta begirale ibili direnei. Baina ez pentsa afaria bakarrik egingo dutenik; izan ere, hainbat jolas prestatu dituzte egun horretarako, bai afarian bertan bai eta kalean egiteko jolasak ere. 21:30ean elkartuko dira frontoiko parkeko monolitoan. Ondo pasatu, bada, eta datorren ikasturtera arte!

**ZINEMA EMANALDIA
GAZTETXEAN**

Datorren eguaztenean, ekainaren 26an, Sam Peckinpah zuzendariaren *Perros de paja* film britainiarra eskainiko dute Bergarako gaztetzean, 22:15ean.

IDEIA BERRITZAILEEN BEKA

Goiekik ideia berritzaileen VI. bekarako deialdia egin du. Ideia bideragarri eta berritzaileak dituztenei eta ideia horiek enpresa berri baten garatu nahi dituztenei dago zuzenduta beka hori. Uztailearen 30a baino lehen aurkeztu behar dira ideia horiek Goiekin bertan.

JUAN SAN MARTIN BEKA

Euskararen gainean ikerketa egiteko beka deialdia egin du Eibarko Udalak. Diplomadunei eta lizentziadunei zuzenduta dago eta EGA edo baliokidea dutenei. Beka hori lortu nahi izanez gero, irailaren 9tik urriaren 10era bitartean Eibarko Udalean bertan aurkeztu behar dira proposamenak.

GUREGAIK/ OLINPIADAK

Gaztetzoeak bukatu dituzte Olinpiadak

AINTZANE IRIZAR

Joan den domekan, ekainaren 16an, bukatu ziren Jardunek gaztetzoeendako antolatutako Olinpiadak, eta sariak ere banatu zituzten. Gau Txori taldea izan zen txapelduna eta Austin Power bigarrena.

Maiatzaren 25ean hasi ziren Jardunek antolatutako gaztetzoeendako Olinpiadak. Ordutik hona, astebururo hainbat kirol eta joko egin behar izan dituzte gaztetzoeak: hockeya, boloak, toka, igela, herri kirolak eta sukaldaritza, besteak beste.

Kirol edo joko saio bakoitzean puntuak lortuz joan dira parte hartzaileak, eta Gau Txori tal-

deak irabazi ditu, azkenean, Olinpiadak, 33 punturekin; Austin Power taldea geratu da bigarren, puntu bakarrera, 32rekin, eta Aupa Gu! hirugarren, 30 punturekin. Alde txikia izan zen taldeen artean, eta azkeneko egunera arte ez zen erabaki txapelketa.

Zortzi taldek parte hartu dute Olinpiadetan, 80tik gora gaztetzok, guztira.

AISIALDIA EUSKARAZ

Bigarren aldiz antolatu ditu Jardunek Olinpiadok. Euren helburua da gaztetzoei aisialdirako ekintzak eskaini eta euskaraz jolasteko aukera eskaintzea. Datorren urteari begira ere Olinpiadak antolatzeko asmoa dutela adierazi digute Jardunekoek.



Domekan bukatu ziren Jardunek gaztetzoeendako antolatutako Olinpiadak.

LOTSABARIK/ Gorka Forján

“Gurasoek oso kontrolatuta naukate”

AINTZANE IRIZAR

Dagoeneko opor giroan murgiltzen hasi da Gorka; motxila bizkarrean hartuta etorri zaigu elkarrizketara. Baina ez pentsa liburuz beteta zeukanik, ez horixe; igerilekura joateko prest etorri da.

• Txikitari, zer izan nahi zenuen?

Futbol jokalaria, Real Madrilgo jokalaria; beti gustatu izan zait futbola.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?

Ez dakit... Lantegiren baten lanean eta Bergaran bizi izaten, neure kontura.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berrero?

Ikasteko, batez ere; kalera irteten naizenean, berriz, esandako orduan itzultzeko etxera.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Ez daukat horrelakorik; gainera, gurasoek oso kontrolatuta naukate.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Ondo pasatzeari; unean une-koari ematen diot nik lehentasuna.

• Zure bertute bat?

Nik uste dut atsegina naizela lagunekin.

• Eta hutsune bat?

Batzuetan, berba larregi egi-

ten dut, eta konturatzeke, min egin izan diot bateren bati.

• Zerk amorratzen zaitu?

Iseka egiten badidate, asko amorratzen naiz; baita merezi ez duenari min egiten diotela ikusten dudanean ere.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Izterrak.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Lehenengo, aurpegiari, begiei, batez ere; baina garrantzi handiena izaerari ematen diot.

• Zer egiten duzu seduzitzeko? Ezer ere ez.

• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Toki exotikoren baten...



ADINA: 15 urte • IKASKETAK: DBHko 2. maila • ZALETASUNAK: Musika entzutea eta futbola • LIBURU BAT: Bat bera ere ez
FILM BAT: 'Scream' • MUSIKA TALDEA: Txapel punk • KIROL TALDEA: Real Madril

TIRABIRAKA/ Oihan Vega





BERGARA
Unai
Ekainaren 26an urtebete.
Zorionak potolontzio!
Asier eta Malen.



BERGARA
Jon Sarasketa
Ekainaren 23an 9 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Omer Garcia
Ekainaren 21ean 8 urte.
Zorionak! Etxekoak;
batez ere, Nora.



BERGARA
Izaro Garmendia
Ekainaren 23an 3 urte.
Zorionak! Gurasoak eta,
batez ere, Unai.



BERGARA
Oihane Altube
Ekainaren 22an urtebete.
Zorionak! Leire, Ihintz,
Malen eta etxekoak.



BERGARA
Olatz Ugarte
Ekainaren 24an 2 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
familia osoa.



BERGARA
Maialen Perez
Ekainaren 21ean 8 urte.
Zorionak! Bergarako
familia eta Jon Ander.



BERGARA
Belen Pelicano
Ekainaren 27an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Yasmina Moreno
Ekainaren 21ean 12 urte.
Zorionak! Gurasoak,
ahizpa eta Aitor.



ELGETA
Uxue Arozena
Ekainaren 18an 6 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.



ELGETA
Argider Txurruka
Ekainaren 19an 6 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.



BERGARA
Christian Rodriguez
Ekainaren 18an 5 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Elixabet.



BERGARA
Markel Dominguez
Ekainaren 21ean 2 urte.
Urte askotarako!
Aitatxo eta amatxo.



BERGARA
Nerea Mujika
Ekainaren 19an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Josu Gorosabel
Ekainaren 17an 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maite Alberdi
Ekainaren 25ean 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aitor Gallastegi
22an 2 urte. Zorionak!
Etxekoak; batez ere,
Amaia eta Josu.



ANTZUOLA
Xabat Askasibar
Ekainaren 18an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Inazio Arriola
Ekainaren 23an 5 urte.
Urte askotarako!
Asier eta gurasoak.



BERGARA
Ainhoa Murillo
Ekainaren 22an 4 urte.
Urte askotarako!
Shaila eta gurasoak.



BERGARA
Jon Durana
Ekainaren 22an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Jone Olabarria
Ekainaren 24an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAn agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Bergara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udai Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekalea 8. BERGARA
Tel. 943 76 31 02

ezpeleta Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

Ganbara TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75

ile apaindegia

edertze gela

disdira

Masterreka, 7. BERGARA
Tf. 943 76 00 55

IRURAK MARGOAK DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behean
943 76 21 80 / 943 76 06 37

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein etxetako horman daude irudi bi hauek:
Gabiria dorrean, Moia dorrean ala Laureaga dorrean?

GALDEDEBALDE

1.

Udalak egindako eroldaren arabera, zenbat txakur inguru daude Bergaran?

- A/ 1.700.
- B/ 2.300.
- C/ 1.000.

2.

Uztailaren 5ean Espoloian izango den Delicatessen taldeko saxojolea bergararra da. Zein?

- A/ Xabier Azurmendi.
- B/ Jesus Álvarez.
- C/ Pedro Iñarra.

3.

Zeinek irabazi zuen San Antonioko txirrintulari saria, lehen urteko kadete mailan?

- A/ Mikel Garmendiak.
- B/ Imanol Mendikutek.
- C/ Unai Arantzabalek.

BERGARAKO ZUHAITZAK

Granadondoa

Punica granatum

MAITANE ARIZABALETA

Batzuetan arantzak izaten dituen tamaina txikiko (2-5 metro bitartekoa) zuhaitz edo zuhaixka. Neguan erortzen zaizkion hostoak forma lantzeolatu eta lustredunak dira. Loreak maiatza eta ekaina bitartean loratzen dira eta banaka edo bizpahiruko multzotan azaltzen diren kolore gorri biziko loreak ematen ditu. Fruitua, aldiz, irailean edo urrian heltzen da: laranja tamainako azal lodi eta koriazeoaz babestutako fruitu esferikoak ematen ditu.

Jatorri balkanikoa izan arren, Euskal Herrian, batik bat, heskai, arbustu nahiz zuhaixka apaingarri gisa ikus dezakegu. Esaterako, Ibargarai ibilbidean, beste espezie mediterranear batzuekin batera.

Fruitua elikagai atsegina da, batez ere, gordinik jateko. Bestalde, granadondoetatik ateratzen den zukuarekin granadina izeneko xarabe freskagarria ateratzen da. Aldi berean, eztarriko minarendako ezin hobea dugu. Hostoak eta azala oso aberatsak dira taninotan, eta lehorgarri bezala oso erabiliak izan dira era guztietako fluxuak geldiarazteko, baita larruak ontzeko ere.

“Granadondoaren fruitua elikagai atsegina da, batez ere, gordinik jateko”



ARTIBOIA



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ESTIBALIZ SIERRArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Estibaliz! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Arane, Arane Goikua eta Arane Erdikua / Galde debalde: 1-C, 2-B, 3-B.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Sos arroza

Kilo bateko paketea

1€

166 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Agirrebeña

JATETXEA



Ibarra kalea 2 • Bergara • Tf. 943 76 20 38

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

INFERNUKUA
TABERNA

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko ekainaren 21a / 118. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

PIEDAD LUGARIZARISTI/KALEBARRENGO BIZILAGUNA

“Gabian harrapatutako arbolia jartzen zebeñ San Pedro bezperan”

AINTZANE IRIZAR

Asteburuan, San Pedroak ospatuko dituzte Kalebarrenen. Denetik egongo da: erromeriak, asto lasterketa, pailazoak... Baina zela ospatzen zituzten jaiak orain dela urte batzuk? Piedadekin berba egin dugu horixe jakiteko.

Zela gogoratzen dituzu zure gazte denborako Kalebarren-go jaiak?

Dantza asko egiten giñuan gazte denboran, eta *kalabazak* be asko emoten giñutzen. Orduetik hona asko aldatu dira Kalebarren-go jaiak; garai hartan, San Pedro egunian bertan ospatzen ziran jaiak, nahiz eta aste barruan tokatu. Hori gauza ederra izaten zan, bestela, jaittik jaira dantzarik egitteke luze egiten jakun. Oin, berriz, gaztiok ez dakit dantzarik be egiten dozuen.

Garai hartan, non egiten zen erromeria?

Kalebarren-go plazatxuan izaten zan erromerixia. Dana dala, lehen, kotxerik be ez zan ibiltzen, eta kalia zihar be dantzan egi-

tten giñuan. Jente mordua etortzen zan kanpotik, gehixenak, oinez: Elosutik, Osintxutik, Bergararik... Kalebarren, gaiñera, beti izan da Antzuolan bizitasun haundixen euki daben tokixa. **Erromeriaz gain, ze beste egoten zen?**

Bezperan, arbolia jartzen zan plazatxuan; auzoko mutil gaztiok gabian harrapatutako arbolia jartzen zebeñ; izan be, San Pedro lapurra ei zan. Gaur egunian, iturriraren onduan jartzen dabe. Neskok, berriz, koroia egiten giñuan, arboliari jartzeko.

Bezperan sua be egiten zan, San Juan bezperan bezelaxe. Oin, erreka baztarrian egiten dabe, beste lekurik ez dago-eta. Lehenago, frontoirako bidian egiten zan sua.

Asto lasterketa egiten zen?

Bai, hori aspaldiko ohiturria da. Lagata be egon zan, astuei tratu txarrak emoten jakuelako.

Gaur egun, zela ospatzen dituzu Kalebarren-go jaiak?

Lo egiten lagatzen badoskue, pozik! Edadiakin oso diferentziak izaten dira jaiak; oin, dantzarik be ez dogu egiten.



AINTZANE IRIZAR

JAIETAKO EGITERAUAK

KALEBARREN

EGUBAKOITZA 21

20:00: Suziri jaurtiketa
22:30: Bidusound diskoteka mugikorra Zurrategin

ZAPATUA 22

11:00: Marrakzi lehiaketa
12:30: Soinu jotzaileak
18:30: Kiki, Moko eta Flax pailazoak
19:00: Buruhandiak
20:00: Arbola jasotzea Ondarreko gaitariekin
21:00: Herri afaria
22:30: Erromeria Koska taldearekin
00:00: Sagar dantza eta sua

DOMEKA 23

10:00: Txistulariekin goiz-eresia
11:30: Meza. Gero, salda eta txorizoa banatuko dute
12:30: Dantza saioa Oinarin taldeko dantzariekin
18:30: Asto lasterketa

SAN JUANAK

UZARRAGAN DOMEKA 23

12:15: Meza. Horren ondoren, Oinarin dantza taldearen dantza saioa, eta luntxa

HERRIKO PLAZAN DOMEKA 23

20:30: San Juan bezperako ospakizuna herriko plazan: arbola jasotzea, dantza saioa eta leiho eta balkoi ederrenetako sariak ematea.

HERRITARREN HITZA / Jose Mari Ugalde • Erretiratuaren elkartearen presidentea

Erretiratu eta pentsionisten kirol jaia

Arratsaldeko 15:30 eta 16:00ak bitartean hurbildu nintzen pilotaleku ingurura eta momentu batean ikusten ari nintzena egiazkoa ala mamuak ote ziren zalantza izan nuen; nire onera etorriaz, konturatu nintzen egiazkoa zela ikusten nuen guztia:



“Gaixo eta ezinduei laguntzeko beharra sentitu behar dugu”

500etik gora erretiratu sasoiko elkartu ginela festa hori ospatzeko, salto eta brinko, irribarretsu eta jolasteko prest.

Hura ikuskizun alaia, nolabait esateko, udaberriko egunsenti bateko eguzkiaren etorrera distiratsua esan zitekeen zela.

Baina pixka bat nire onera etorriaz, agertu zitzaidan laino multzo bat eta eguzkiaren distira hori lausotu egin zitzaidan eta burura etorri bagenuela

beste talde bat geurea, geure geurea, gaixoak eta ezinduek, hain zuzen ere, han ikusten ez zirenak, eta ahal dugun neu-

rrian, haiek alaitzeko obligazioa sentitu beharra daukagula.

Erraz topatu ohi diogu horri erantzuna, esanaz horretarako daudela goi mailako erakundeak: Foru Aldundia, udaletxea eta abar eta abar. Egia da, baina horien guztien laguntzaz gain, guk ere badugu zereginik.

Pertsona horiek ahalik eta modurik egokienean euren etxean, auzoan edo herrian bizi izateko beharrezko duten laguntza emanaz lagundu beharko genieke.

Ez nuke nahi inor lausotuta ikusterik, baizik eta alai eta irribarretsu, baina esan bezala, beste talde hori ahaztu gabe.

LABUR

Antzuolako Atzegiko kideek Atzegizaleak lortzeko mahaia jarriko dute bihar, zapatua

San Pedro jaiak aprobetxatuz, Antzuolako Atzegikoek, urritasun psikikoak dituztenen senitartekoen elkartearen mahaia jarriko dute Kalebarrenen bihar, zapatua. 12:00etatik 13:30era egongo dira hantxe; euren helburua da Atzegizaleak lortzea, Atzegiri eta urritasun psikikoak dituztenei laguntzeko prest dauden herritarren, hain zuzen ere.

Herriko jaietan tonbola jartzeko, sariak eta dirulaguntza batzen ari da Anelkar

Herriko jaietan herriko plazan jarriko dute tonbola Anelkar elkartearen kideek, aurreko astean aurreratu genizuen moduan. Tonbola horretarako, sariak eta dirulaguntzak batzen jarraitzen dute Anelkar elkartearen kideek. Gogora ezazue, laguntzaren bat eman nahi izanez gero, honako herritar hauekin jar zaitezketela harremanetan: Kontxi Laskurainekin, 943 76 60 62 telefono zenbakian; eta Jabier Etxanizekin, 943 78 70 56 zenbakian.

KIROLA

Udan kirola egiteko aukera guztiendako

AINTZANE IRIZAR

Udako Kirol Ekintzetan adin guztietako herritarrek dute parte hartzeko aukera, gazteek eta helduek. Uztailaren 1etik 18ra, egunero izango dira kirol ekintza horiek guztiak, egunean ordubete inguru.

Gazteendako, 13 eta 20 urte bitartekoendako, hain zuzen ere, hainbat kirol egiteko aukera eskainiko du Udaleko Kirol Zerbitzuak: tenisa, patinajea eta multikirola egin ahal izango dute adin tarte horretako neska-mutulek. Esan bezala, egunero izango dira ekintzok, honako ordutegi hauetan: tenisa, 10:00etatik 11:00etara; patinajea, 11:00etatik 12:00etara; eta multikirola, berriz,

10:30etik 12:00etara. Adin tarte horretako gazte gehienak ikasleak izanik, ikasturtea bukatu eta oporretan daudelako jarri dituzte kirol saioak goizez.

Helduendako, berriz, 20 urteko gorakoendako, tenisa eta patinajea antolatatu ditu Udalak. Tenisa 19:00etatik 20:00etara izango da; patinajea, aldiz, 20:00etatik 21:00etara. Helduen kasuan ere uztailaren 1etik 18ra izango dira kirol ekintza horiek, egunero.

Parte hartu nahi dutenek datorren astelehena baino lehen, (ekainak 24) eman beharko dute izena udaletxeko bulegoetan. Izena ematerakoan, 12 euro ordaindu beharko dira. Kirol ekintza bakoitzerako 8-12 lagunendako lekua dago.



Lau aldiz agertu dira erleak

Bi asteren barruan lau aldiz agertu dira erleak eskola aurreko aldeko plazatxoan. Badirudi elizako hormako zulo baten daukatela erlategia; erregina berria atera eta lehengo tokitik alde egiten ei dute erleak. Lehendabiziko aldian, Teodoro Kortabariak erretiratu zuen erlea, eta plazatxora inguratu ziren eskolako umeei erleen gaueko era guztietako azalpenak eman zizkien Teodorok; adi-adi egon ziren ume guztiak. Ea, bada, toki egokiren bat topatzen duten erleak! /A.I.

IRAKURLIAREN TXOKUA

URREZKO DOMINA (MUNDIALA) ESKOLA KIROLEKO GAZTETXOENTZAT

Denboraldia bukatu eta sorpresa handia jaso genuen joan zen ostiralean Antzuolako haurrekin eskola kirolean aritu garen entrenatzaileok: eskolara gonbidatu gintuzten arratsaldeko zortzi eta erdietan, eta han zeuden gaztetxo denak bilduta; bi bertso eder kantatu zizkiguten eta ondoren bertso hauek idatzita, marko baten oparitu.

Guretzat jaso genezakeen saririk ederrena izan da; lan apur bat egin dugu, bronka batzuk ere bota ditugu (nahiz eta bertsotan hori ez jarri), baina ostiralean mutu utzi gintuzten. Kurtsoan zehar akats batzuk egin ditugu, baina ahalegindu gara kiroltasuna erakusten, eta benetan kiroltasunez erantzun duzue. Zuentzako urrezko domina eta gure esker ona! Jarraitu ezazue horrelaxe! Gu, berriz, ahaleginduko gara aurrerantzean ere ahal dugun neurrian, behintzat, laguntzen.

Kiroltasuna, trebezia eta gizatasuna azaldu duzue, garaipen eta porrot guztien gainetik harremanak eta elkartasuna landu dituzue; txapel handia zuentzat.

ENTRENADORE
TALDEA ETA ESKOLA
KIROLEKO BATZARRA

IRAKURLIAREN TXOKUA

KONTUOLAn zure gutuna argitaratzea nahi izanez gero, kontuola@goiena.com helbidera bidali edo telefono zenbaki honetara dei dezakezue: 943 76 03 97. Beterie, martitzen goiza aurretik bidaltzea komeni da.

LABUR

Antzuolako odol emaile biri urrezko domina eman zieten, eta bosti zilarrezkoa

Joan den domekan, ekainaren 16an, urteko Batzar Nagusia egin zuen Deba ibarreko Odol Emaileen Elkarteak Arrateko Santutegian. Meza entzun ostean, bazkaria egin zuten Arraten elkartutako 182 lagunek. Bazkalostean, 25 eta 50 aldiz odola eman dutenei dominak eman zizkieten hantxe. Tartean, zazpi antzuolarrek jaso zituzten dominak; Eugenio Larrañagak eta Jesus Igartzak urrezko domina jaso zuten. Zilarrezkoa, berriz, honako hauek: Maria Jesus Arbuluk, Casimiro Muxikak, Mari Karmen Iturbek, Jose Mari Iparragirrek eta Ibon Garitanok.

Aiastui Peñak antolatutako bizikleta jolasak ekainaren 30ean bukatuko dira

Ekainaren 30eko San Martzialerako Igoerarekin bukatuko dira bizikleta probak. Joan den asteburuan, Uzarragarako Igoera jokatuzuten: benjaminetan, Jon Iturbek irabazi zuen, Markel Letek bigarren egin zuen eta Aitor Laskurain sailkatu zen hirugarren; alebinetan, berriz, Aitzol Iturbek irabazi zuen, Ibai Zabalo eta Unai Ormaetxearen aurretik; azkenik, Andoni Muguruzak irabazi zuen infantiletan eta Mikel Asensiok txikienen mailan. Bihar, zapatua, 12:00etan, ginkana jolasak egongo dira Zurrategiko plazan.

Antzuolako Kirol Elkarteak denboraldi amaierako jaiak ospatu zuen zapatuan

Joan den zapatuan, ekainaren 15ean, ospatu zuen denboraldi amaierako jaiak Antzuolako Kirol Elkarteak. Afaria izan zuten, eta afa-lostean sari bi banatu zizkieten talde bakoitzeko jokalarari biri. Nesken taldean, Maialen Hernándezek eta Ana Peñalbak jaso zituzten sariak; erregionalen mailan, Ibai Azkaratek eta Jon Arangurennek; gazten mailan, Jon Ander Castrok eta Gorka Igle-siasek. Kadete mailan, azkenik, talde osoari eman zioten saria: jokalariei bat eta talde tekniko osoari beste bat.

Lau triatleta antzuolarrek hartu zuten parte zapatuan Zarauzko Triatloian

Debagoiena Antxintxika taldeko lau antzuolarrek hartu zuten parte joan den zapatuan Zarautzen jokatutako triatloi proban. 2,5 kilometro igerian, 80 bizikletan eta 20 korrika egin behar izan zituzten. Aitor Larreak lortu zuen postu onena: 22. tokian sailkatu zen, lau ordu, 25 minutu eta 55 segundoko denborarekin, Eneko Llanos irabazlearengandik 31 bat minutura. Julen Garitanok 04:41:49ko denbora egin zuen; Carlos Baleztenak 04:45:10ekoa eta Imanol Pildainek, berriz, 05:35:48koa.

Datorren asteburuan ospatuko dituzte San Martzialgo jaiak, ekainaren 29an eta 30ean

Datorren asteburuan, ekainaren 29an eta 30ean, ospatuko dituzte San Martzial jaiak. Ekainaren 29an, zapatuan, goizeko hamaitan hasiko dira ekitaldiak. Plater tiroketa proba egongo dute ordu horretan; arratsaldean ere hainba ekitaldi egongo da. 18:00etan umeendako jolasak egongo dira; nahikoa jolas egin ondoren, 19:00etan, txokolate-jana egongo da eta trikitilariak ere arituko dira; 21:00etan, herri afaria egongo da. Domekan, berriz, 12:00etan, meza izango da; 13:00etan, herriko dantzarien saioa izango dugu; arratsaldean, azkenik, dantzarako aukera izango dugu, 16:00etik aurrera, Joxe Gardokirekin.



**MUEBLES
IGEA**

Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80



Juan Cruz
ARGAZKIAK

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko ekainaren 21a / 103. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Hilabete dugu Arau Subsidiario berrien proiektuari proposamenak gehitzeko

OXEL EROSTARBE

Eguen iluntzean, Espaloia aretoan izan zen batzarrean aurkeztu zuen Toledo Taldeak Arau Subsidiarioak berritzeko egin duen proposamena. Herritar ugari inguratu ziren Espaloira, eta batzuek, behintzat, euren zalantzak aurkeztu zituzten.

Laurogei lagun inguru batu ziren Arau Subsidiario berrien proposamena azaltzeko Elgetako Udalak antolatutako batzarrean. Toledo Taldeko Jose Migel Toledo, Jabier Azpillaga eta Kristina Zarrabeitia izan ziren hizlariak.

Elgetako Udalak etxe guztietan banatuta zeukan ordurako arau berriek osatuko duten plana. Toledo taldeak plano hori zehaztasun handiagoarekin azaldu zuen egueneko batzarrean.

Industrialdeari dagokionez, herri barruan dauden industriak bertatik ateratzea eta Pagatzako industrialdea Lehenengo errekaraino zabaltzea da asmoa. Hori dela eta, Berraondokuan, Lasao atzealdean eta Artekalen dauden industriak industrialde berrian ezarri beharko dituzte.



Arau berrien gainean dauzkaten zalantzak azaldu zituzten egueneko batzarrean zenbait herritarrek.

351 ETXEBIZITZA BERRI

Guztira, 351 etxebizitza gehiago eraikitzea zehaztu dute arau berrietan. Berraondokuan 108 eraikiko dituzte, Torrealdean 76,

Bentafria inguruan 90 eta Artekalen, berriz, 54. Uruburun elkarri atxikitako 68 etxebizitza eraikitzea zehaztu dute, Larrabilzearean familia bakarreko 15

etxebizitza eta Torre inguruan, 8. Arau Subsidiarioen inguruan proposamenak egin edo eta kezak azaltzeko, udaletxera jo behar dugu hilabete pasa aurretik.

Herritar ugari batu zen Espaloian, Arau Subsidiario berrien nondik norakoak ikustera

Herri barruan dauden industriak industrialdera eramatea pentsatu dute

Arau berrietan era askotariko 351 etxebizitza gehiago egitea zehaztu dute Toledokoek

AIPAGARRIA

Duela 60 urte, elgetar bat erail zuten naziek gas-ganbaran

O.E.

Ekainaren 28an, 60 urte beteko dira naziek Tomas Rebollo Etxaniz elgetarra Mauthausen-eko gas-ganbaran erail zutela. Elgetako Udalera 1989an bidalitako gutun baten eta Eusko Report-en argitaratu zen artikulua bidez jakin dugu horren berri.

Tomas Rebollo Etxaniz Elgetan jaio zan, 1907ko abenduaren 21an. Aittak Renfen egiten zeban lan. Aittaren lan kontuak zirala-eta, umia zanian Bartzelonara juan zan bizi izatera. Hantxe ezagutu

zeban Maria Olivart. Urte biko ezkongai harremanaren ostian, 36xan, ezkondu egin ziran. Gerra Zibillak Bartzelonan harrapau zittuan Tomas eta Maria. Tomasek Errepublikanuen ejerzitian egin zeban burrukan. Bilbo eta Irun Francoren tropen eskuetan geratu ziranian, Frantziatik Kataluniara gerrara juandako 150.000 euskaldunekin batera, Frantziara egin zeban ihes, Francoren tropek Katalunia hartu zebanian.

Frantziako mugan Argelesur Mer eta Saint-Cyprien-eko arenaletan errefuxiatuen zelaxak sortu zittuen horri giza uholdeorri eusteko.

Hendaian Hitlerrek eta Francok izan zeban elkarriketia horren pertsona danon norabidia aldatu zeban. Izan be, Hitlerrek Francori honekin errefuxiatuekin ze egin galdetu zotsanian,

Errepublikanuen ejerzitian burrukan egin eta gero, Mauthausenera eruan zeben

Francok erantzun zotsan ahal zan urriñen eruateko. Baitta urrin eruan be.

MAUTHAUSENEKO ESPARRUAN

Austriara ganadu-bagoietan eruan zittuen Frantziaren errefuxiatu ziranak. Hara heldu ziranian, konzentraziño-esparrura sartzian hango zaintzailliak esan ei zotsen handik tximinixatik bakarrik urten zeikiela.

Guztira 49 izan ziran hango konzentraziño-esparruan hil ziran euskaldunak. Bermeo, Deba, Gallarta, Bastida, Irun, Donostia eta Bilbokuen artian hil zeben Tomas Rebollo elgeta-

rra. 1942ko ekaiñaren 28xan konaturatu zan Tomas bere billa zetozela. Gas-ganbaran hil zeben.

Aurretik, bere lagunari gordeta zeukan Ikurriña emoi eta hau esan ei zotzan: "Hemendik urtetzia lortzen badozu, emon hau Ikurriñau nere andriari. Esan hemen Ikurriñan doiala berakiko, geure semiakiko eta jaiotzen ikusi zotan lurrakiko, Euskadikiko, daukadan maittasun guztia".

Ekaiñaren 28xan, 60 urte beteko dira hori gertatu zanetik. Jaiotzez elgetarra izan arren, Tomas Rebollok ez dau sekula jaso elgetarron esker ona.



Astebete geratzen da Ferixa Nagusiak hasteko

Astebete bakarrik geratzen da Elgetarrok jaixetan murgiltzeko. Aurreko zapatuan, Espaloian izandako aurkezpenian, aurtengo Ferixa Nagusixetako egitaraua aurkeztu zeban Jai batzordiak. Aurkezpena eta *Hau Paraderoa* antzezlanak ikusteko herritar ugari batu ziran Espaloian. Erretiratuei 25 urtian bazkarixa emotearren, Ozkarbi Elkartekuak izango dira pregoilarixak./O.E.

LABUR

Bakeaz-ek egingo du herrian gertatzen diren ingurumen arazoan diagnostikoa

Bakeaz-i esleitu dio Udalak diagnostikoa egiteko ardura. Herrian gertatzen diren ingurumen arazoan diagnostikoa egiteak 4.927 euroko aurrekontua izango du. Dauden arazoak ikertu eta herriko taldeekin batera arazo horiei aurre egitea da helburua. Herriko elkarrekin elkarriketak egingo dituzte Bakeaz-ekoek, arazoei aurre egiteko plana osatu eta Agenda 21 zer den azaltzeko.

Meta galanta osatu dute herriko neska-mutikoek, San Juan bezperan erretzeko

Aste osoan, etxez etxe jardun dute herriko neska-mutikoek, San Juan suetarako egunkari zaharrak eta egurrak batzen. Domekan, ekainaren 23an, emango diote su kiroldegian osatu duten metari. Azken urteetan moduan, 22:00ak aldera piztuko dute sua, eta herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte kiroldegira. Seguruenik, trikitilariak ere izango dira gaua alaitzeko.

Bazkariarekin esango diote agur eskolako umeei aurtengo ikasturteari

Ikasturteko azken astea dela eta, aste osoan goizez bakarrik izan dituzte eskolak herriko neska-mutikoek. Gaur, egubakoitzan, 13:00ak aldera, bazkaria egingo dute eskolan, eta bazkari horrekin agur esango diote ikasturteari. Uda heldu da eta umeei ondo pasatzeko moduko eskaintza antolatu du Kirol batzordeak.

KIROLA

Zinaida Stahurskaiak irabazi zuen zapatuan Emakumeen Birako erlojukontrako etapa

Elgetako maldetan bizkorrena izanda, sailkapen orokorreko lehenengo postua ere eskuratu zuen bielorrusiarrak. Domekan lehen postuari eutsi zion eta Zinaida Stahurskaia izan da aurtengo Birako irabazlea. Eneritz Iturriagak merezitako bigarren postuan amaitu zuen.

ne Somarribak ezin izan du parterik hartu. Haren hutsunea ederto bete du, ordea, Eneritz Iturriaga abadiñarrak. Deia-Pragma taldeko ziklista bigarren izan zen Elgetako helmugan, baita sailkapen orokorrean ere.

GAUR, LAU T'ERDIKO FINALURREKOAK
Iluntzeko 19:30etatik aurrera izango dira aurtengo Lau t'erdiko Txapelketako finalurrekoak. Nagusietan, Agestak Altuna izango du aurkari eta Bengoetxeak Mendizabal. Agestak eta Bengoetxeak dituzte aukera gehien datarren domekan jokatu den finalerako sailkatzeko.

Gazteen mailan, aldiz, Castillorok, Esnaolak, Elurbek eta Urdanizek daukate txapela janzteko aukera. GOTBk astelehenean osorik emango ditu partiduetan.



Stahurskaiari Patxi Basauri eta Emilio Mandalunizek eman zioten saria.

ARETO FUTBOLA

PARTIDUAK

- 15:00: Txapela-Bar El Arco Chievo
- 16:00: MTS-Chievo Bar El Arco
- 17:00: Komano Piperrak-Arineketan MTS
- 18:00: Vicios-Spias Komando Piperrak

EMAITZAK

La Kokotxa-Chievo	Atzeratuta
Txapela-Arineketan	5-1
MTS-Spias	4-5
Komando Piperrak-Vicios	1-2

SAILKAPENA

Taldea	P	J
1. Arineketan	11	7
2. Vicios	11	7
3. Txapela	10	7
4. Bar el Arco	8	7
5. Spias	8	7
6. Chievo	6	6
7. Komando Piperrak	6	7
8. MTS	2	7
9. La Kokotxa	0	7

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA


Goibekokale



RECYDE, S.A.
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR
ER
Enpresa Itzregistratua
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

BOLATOKI
taberna-jatetxea



- Asteazken zehar eguneko menua
- Asteburuetan menu bereziak eta sagardotegiko menua
- Pintxoak, ogitartekoak eta errazioak

Artekale 2, Elgeta. 943 76 82 84

ERRETRATUZAHARRA

Elgetako jaixetan
txarangia
kuadrillan

Ferixa Nagusiko jaixetarako astebete bakarrik geratzen da. Urtien jua-entorrixan jaixak be aldatuz jua dira. Lehenago, kuadrilla bakoitzak bere modura antolatzen zeban jaixa. Erretratuan ikusi geinkenez, batzuk, eurak bakarrik nahikua ziran herrixa girotzeko.

Honek kuadrillionez, behintzat, lortu zeban herrixa girotzia. Erretratuan Joseba Elkoro ikusi geinke txistuakin eta danboliñakin eta Arantzabal txikixa txapekin. Gaiñontzekuek turutakin eta bonbuakin laguntzen zotsela, hantxe ibilli zan kuadrillia kalia gora kalia behera. Turutak helduta ikusi geinkez Jorge Bolinaga, Juan Luis Arantzeta eta gaiñontzekuak. Mikel Ikatzarrekua be batu zan kuadrillara.

Aurtengo Ferixa Nagusixetan herriko kuadrilla danek batera emongo dotse hasieria jaixei. Hori da, behintzat, Jai batzordiak nahi izan dabena. San Roke kalia behera etorriko dira danak eguen illuntzian. Ia ba aurtengo jaixak aurreko urtietako

ko giruan bizi izaten dittugun. Horretarako ekitaldixak ez dira faltako. Jai batzordiak adin eta gustu desberdinetako jendiandako moduko jaixak antolatu dittu-eta. GOIBEKOKALEn partetik, ondo-ondo igaro jaixak!

Urtea: 1980



ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzi!

NOLA ALDATU DIRENGAUZAK

Ozkarbi
Elkartia ren
billakaeria

Oinguan, Ozkarbi Elkartia dagon edifiziuak izan daberen billakaeria ikusiko dogu. Ozkarbi bazkide gehixen daukan elkartia da.

Ozkarbi Elkartia berezixa izan da herrixaren historixan. Hori dala eta, aurtun, elkarteko bazkideiek botako dabe jaixetako pregoia. Izan be, urtetan lagundu izan dau jaixak antolatzen eta erretratuen eguneko bazkarixa emoten.



≈ 1980

Hau erretratuan Ozkarbi Elkartia barritu aurrekua da. Bertan ikusi geinke Mendi Federaziñua bertan sortu zala esaten daberen plakia.



2002

Edifiziuak nahiko antzera jarraitzen dau. Hala eta be, teillatua gero eta okerrago dago eta laster egin biharko dira bertan konponketak.




Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.

Etixerako ederrena, Zanguitun

Eskulan eta arte ederretako produktuak ere baditugu!



**%20ko
deskontua
etxerako
pinturetan**

**Koloreak
sortzeko
makina**
Paretetarako,
zorurako,
altzariak
margotzeko...

ZANGUITU margoak

Irala z/g. BERGARA.
Tel.: 943 76 19 54.

IRU margoak

Araba etorbidea 3. ARRASATE.
Tel.: 943 79 11 71.

Parket flotatzailea* Sintasola* Mocketak*
Paper pintatuak

*Salmenta eta etxean ipintzea.



deco-tex ZANGUITU alfonbrak

Herri lagunak 4. BERGARA.
Tel.: 943 76 08 69.

Alfonbrak Alfonbrak neurrira Funda nordikoak
Edredoiak **Kortinak** **Toailak** **Izarak**

**Menua
martitzenetik
domekara.**

**Bazkari
bereziak
enkarguz:
627 818 212.**

**Plater
konbinatuak.**

**Menu
begetarianoa.**

**Ogitartekoak,
pintxoak,
kazuelatxoak.**



...eta leku paregabea.

GORLA KANTINA



Sukaldeen berritzea. Bainugelen berritzea. Zeramikan azken berrikuntzak.
Jakina gremio guztiak eskaini eta koordinatzen dizkizuegu. Jakina, zurekin pentsatzen.



JAKINA

BAINUGELAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK
Bergarako FAGOR banatzaile bakarra

San Lorentzo Industri Pol., Amillaga 10. BERGARA.
Tel.: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.

FAGOR 
Sukaldeko altzariak

AENOR

Produktu
zertifikatua

6
URTEKO
GARANTIA